



ADUNAKO GARAPEN IRAUNKORRAREN ALDEKO PLAN ESTRATEGIKOA

(2013ko otsaila)



AURKIBIDEA

Aurkezpena	3
Plan Estrategikoaren edukia	5
1. Lerro estrategikoa (lurralde plangintza)	5
2. Lerro estrategikoa (mugikortasuna)	6
3. Lerro estrategikoa (biodibertsitatea eta paisaia)	7
4. Lerro estrategikoa (natur baliabideak eta hondakinak)	9
5. Lerro estrategikoa (ingurumen inpaktua)	11
6. Lerro estrategikoa (arriskuak eta jarduera ekonomikoak)	12
7. Lerro estrategikoa (komunikazioa eta partaidetza)	13
8. Lerro estrategikoa (garapen ekonomikoa)	14
9. Lerro estrategikoa (gizarte ongizatea eta ekitatea)	15
10. Lerro estrategikoa (eguneroko beharrak eta azpiegiturak)	16



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio



udalsarea21
jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea
red vasca de municipios hacia la sostenibilidad



INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA

AURKEZPENA

Adunako Agenda 21en I. Ekintza Planaren berrikuspen faseari lotuta emandako azken pausoa, herritarrekin garapen iraunkorraren aldeko plan estrategikoaren zirriborroa (Agenda 21en II. Ekintza Plana izango dena) diseinatzea izan da.

Plan Estrategikoaren zirriborroa idazteko orduan, Udalsarea 21en "Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak berrikusteko gida metodologikoa" aintzat hartzeaz gain, prozesuan zehar aurrera eramandako honako pausoak eta horietatik eratorritako dokumentuak kontuan izan ditu aholkularitza enpresak:


- Diagnostikoaren faseko ondorio nagusiak eta antzemandako lehentasunezko jarduera eremuak
- 2012ko irailaren 27an udaletxean izandako barne-partaidetzako 1. saioan adostutako 2020 urteari begirako ikuspegia
- 2012ko urria eta abendua bitartean herritarrek, antolatutako herri-batzarretan eta osatutako formularioetan, egindako proposamenak
- 2012ko abenduaren 20an udaletxean izandako barne-partaidetzako 2. saioan adostutako plan estrategikoaren zirriborroa
- 2013ko urtarrilaren 23an antolatutako herri-batzarrean Plan Estrategikoaren III. zirriborroari egindako azken ekarpenak

2012ko iraila eta 2013ko urtarrila bitartean egindako lan partekatuaren emaitza da, beraz, eskuartean dugun dokumentuan jasotzen den edukia.

Hori horrela, lehenik eta behin, Plan Estrategikoaren **2020 urteari begirako ikuspegia** ezarri da:

2020an Aduna herriarentzat eta herritarrekin eraikitako herri bizia izango da, euskalduna, parekidea, ingurumen kalitate handikoa, ekonomia dinamikoa duena eta herriko natura baliabideen erabilera orekatua bultzatuko duena.

Ikuspegia ezarrita, 2012ko urria eta abendua bitartean antolatutako 4 herri-batzarretan, ezarritako ikuspegi horretatik abiatuz, Plan Estrategikoaren **10 lerro estrategikoak** (Planaren helburu orokorrak), jarduera programak (lerro estrategikoak lortzeko helburu zehatzak dira) eta ekintzak landu eta adostu ziren.



Tokiko Ekintza Planen oinarritzko egitura

Iturria: guk egina, "EAE-ko udalerrietako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak berrikusteko gida metodologikoa"n oinarrituta

Hurrengo orrietan jasotzen den edukiak, beraz, aipaturako partaidetza bileretan egindako lana ere aintzat hartzen du. Bestetik, Agenda 21en aurreko ekintza planean lehentasun altua zuten ekintzetatik garatu gabe geratu ziren hainbat ekintza ere barneratu dira Plan Estrategikoan (batzuetan, halako ekintzen izenburua berridatzi egin da, zehaztasun gehiago emanaz edo behar denean, egungo errealitatera moldatuz). Horrekin batera, 2013ko urtarrilaren 23ko herribatzarrean jarduera programen lehentasun maila adostu zenez (lehentasun altua, ertaina edo txikia duten zehaztuz), Plan Estrategikoaren jarduera programaren ondoan lehentasuna zein den finkatu da.

PLAN ESTRATEGIKOAREN EDUKIA

1. LERRO ESTRATEGIKOA: HERRITARREN OINARRIZKO BEHARRAK ASETZEKO GAI DEN HIRI-EREDU OREKATU BATEN ALDEKO UDAL KUDEAKETA BULTZATZEA

1.1 Jarduera Programa: Nekazaritza jardueraren iraunkortasuna bermatzera zuzendutako lurzoruen erreserba eta kudeaketa aurrera eramanean (LEHENTASUN ERTAINA)

1.1.1 Landa eremuak mantendu eta egoera onean kontserbatzea

1.1.2 Udaletik lurren azterketa bat egitea, 1. sektorearentzat erabilgarriak diren eta erabiltzen ari ez diren lurak antzemateko

1.1.3 Nekazaritza edo abeltzaintzarako interesgarriak diren lur berriak ez okupatzeko, lur horiek erreserbatzeko jarduerak burutzea (1. sektorearen garapenerako)

1.1.4 Erriberako agroaldea ezartzeko garaian, eremu horren kalitatea bermatzeko, neurriak hartzea

1.1.5 1. sektorearentzat egokiak diren lur eremu berriak neurrigabe artifizializatzea ekiditea (hiri-garapen berriak arrazionalki kudeatuz)

1.2 Jarduera Programa: Adunaren berezko izaera aintzat hartzen duen hirigintza eredu bultzatu, hazkundera kontrolatuz (LEHENTASUN ALTUA)

1.2.1 Hirigintza hazkunde kontrolatu bat bermatuko duen lurzoruak lortzen jarraitu

1.2.2 Hirigintza garapen eta erabilera berrietan sor daitezkeen mugikortasun beharrak aintzat hartzea

1.2.3 Herriaren berezko identitate elementuak babestea, hirigintza planeamenduaren tresna ezberdinen bidez (babes bereziko eraikinak, bertako etxebizitzaren nortasuna errespetatzea etorkizuneko garapenetan, ...)

1.2.4 Auzoen arteko oreka eta garapena bultzatzea, ekipamendu eta zerbitzu publikoen ikuspuntutik

1.2.5 Etxebizitzaren errehabilitazioa sustatu eta beraien konforta handitu, auzoetan kokatutako eraikinen ezaugarri tipologikoak zein eraikuntza ezaugarriak mantenduz:

- Zaharberritze-obrak sustatzeko, obra baimenen tasan, hobariak egotea

1.2.6. Hiri altzarien mantentzea hobetu eta pixkanaka berritzen joan

2. LERRO ESTRATEGIKOA: AUTOAREN ERABILERA GUTXITZEKO GAI DIREN GARRAIOBIDEEN ALDEKO APUSTUA EGITEA

2.1 Jarduera Programa: Oinezkoen, bizikletaren eta ezgaitasunen bat duten herritarren desplazamendu seguruak bultzatu (LEHENTASUN ALTUA)

- 2.1.1** Aparkalekuaren gaia aztertu eta lantzerako orduan, espazio publikoa eta aparkaleku beharraren oreka bilatu
- 2.1.2** Oinezkoentzat jarritako guneak eraikitzen edo egokitzen jarraitu, oraindik beharrezkoak gerta daitezkeen eremuetan
- 2.1.3** Oinezkoek eta bizikletek batera erabiltzeko bideak eraiki, behar den tokietan, bakoitzak bere eremu ezberdindu izatea baloratuz
- 2.1.4** Egungo zein etorkizuneko zerbitzu publikoetara eta ekipamenduetara iristeko mugak ezabatzea (traba arkitektonikoak, ...)
- 2.1.5** Mugikortasun iraunkorraren aldeko sentsibilizazio jarduerekin aurrera jarraitu

2.2 Jarduera Programa: Bide-segurtasuna bermatzeko proiektuak gauzatu (LEHENTASUN ALTUA)

- 2.2.1** Arrisku-puntuak identifikatzea (kanpo santua, ermitako bidean, ...), ezabatzea edo murriztea
- 2.2.2** Bide-hezkuntzako ekimenak aurrera eramatea
- 2.2.3** Errepide sarearen mantentze lanak gauzatzea:
 - Foru Aldundiaren eskuetan dagoen Agaramundo baseritik Sorabillako zubira arteko errepidea konpontzeko eskatu
- 2.2.4** Landa bide sarearen mantenu egokia egitea
- 2.2.5** Errepideetan argiteria publikoaren estaldura bermatzea, bide-segurtasuna eta energiaren erabilera arrazionalaren arteko oreka bilatuz

2.3 Jarduera programa: Garraio publikoko eskaintza eraginkor bat ezarri (LEHENTASUN ALTUA)

- 2.3.1** Autoaren erabilera murrizteko garraio publikoari lotutako alternatiba ezberdinak ezartzea (tarifa politika eraginkorrak, ordutegi erakargarriak, ...):
 - Herritik kanporako desplazamenduak garraio publiko eraginkor baten bidez gauzatzeko baliabideak ezartzea, auzo edo eremu ezberdinetara ere iristeko aukerak baloratuz
- 2.3.2** Herritarrei zuzendutako informazio eta sentsibilizazio ekintzak antolatzea

3. LERRO ESTRATEGIKOA: BIODIBERTSITATEA BABESTEIA ETA HERRIKO NATUR ETA PAISAIAREN BALIOAK INDARTZEA

3.1. Jarduera Programa: Herriko paisaian eragina izan dezaketan elementu eta azpiegituren kontrola aurrera eraman
(LEHENTASUN ERTAINA)

- 3.1.1** Halako inpaktuak sortzen dituzten obrak hasi aurretik, prebentzio neurriak ezarri
- 3.1.2** Enpresa edo erakunde sustatzaileekin harremana landu
- 3.1.3** Udalaren aldetik halako proiektuen gaineko jarraipen lanak egin
- 3.1.4** Gai honi lotutako araudi zehatzak lantzea eta horien jarraipena egitea
- 3.1.5** Tentsio altuko dorreen inpaktua ezabatzeko neurri posibleak lantzen eta aztertzen jarraitu

3.2 Jarduera Programa: Herriko natur ondarea babestu, mantendu eta biodibertsitatea handitzeko proiektuak gauzatu
(LEHENTASUN ERTAINA)

- 3.2.1** Udal jabetzako mendien kudeaketa jasangarriaren alde egin, basoen kudeaketa arduratsua bultzatuz (interes ekonomikoak hutsetik baino haratago doana) eta balore natural edo kultural handiko guneak babestuz
- 3.2.2** Bertako basoak kontserbatzeko ekimenak aurrera eraman
- 3.2.3** Errekak eta lotutako landaredia eta fauna babestu:
 - Errekako urari bere bidea egiten uzteko jarduerak gauzatu
 - Errekan isurtzen diren hondakinak kentzea
- 3.2.4** Kaltetutako eremuak identifikatu
- 3.2.5** Kaltetutako eremuak berreskuratu
- 3.2.6** Landa paisaia babesteko ekimenak gauzatu, biodibertsitatearen babesarekin orekatuz
- 3.2.7** Espezie exotikoen arazoari aurre egiteko baliabideak ezarri
- 3.2.8** Hirigintza hazkundera eta naturaren kontserbazioa uztartu

3.3. Jarduera programa: Herriko natura ondarea eta pasaia ezagutarazi eta babestearen garrantziaz jabetzeko jarduerak burutu
(LEHENTASUN ERTAINA)

3.3.1 Gai honi buruzko ingurumen hezkuntza landu, sektore ezberdinekin elkarlanean

3.3.2 Turismo berdearekin zerikusia duten ekintzak gauzatu

3.3.3 Natur ondarearen inbentariatzeko lanekin jarraitu eta herritarrei ezagutzera eman

4. LERRO ESTRATEGIKOA: HERRIKO NATUR BALIABIDEAK ARDURAZ ERABILTZEA ETA HONDAKINEN SORRERA GUTXITU ETA ERAGINKORKI KUDEATZEA

4.1. Jarduera Programa: Uraren kontsumoa murriztea eta hornidura nahiz saneamendu sistema hobetzea (LEHENTASUN ALTUA)

4.1.1 Uraren aurrezpen neurriak ezartzea sektore ezberdinetan

4.1.2 Edateko uraren kalitatea ezagutzeko analisiak egin

4.1.3 Urbanizazio berrietan euri-uren aprobetxamendua bultzatu

4.1.4 Udal jardueretan euri-uraren aprobetxamendua bultzatu

4.1.5 Ur galerak ekiditeko sarearen mantenu lanak gauzatu

4.1.6 Hondakin uren sarean beharrezko hobekuntza lanak aurrera eraman:

- Sarea banatzailea izateko pausoak eman (euri-urak batetik eta hondakin-urak, bestetik)
- Adunako hondakin urei irtenbidea eman udalerriko erriberan aurreikusten den hondakin uren araztegiaren bitartez
- Hondakin uren sarea berritzeko lanak aurrera eraman

4.1.7. Ibaiko landaredi eta ertzetan metatzen diren hondakin ugarien arazoa saihesteko herritarren sentsibilizazio ekintzak garatu eta garbitzeko ekintzak antolatu

4.2 Jarduera Programa: Adunak duen mendekotasun energetikoa gaitzuten laguntzeko egitasmoak abiaraztea (LEHENTASUN ERTAINA)

4.2.1 Energia iturri berriztagarriak bultzatu, besteak beste, obra berrietan energia berriztagarrien ezarpena erraztuz:

- Udal eraikinetan energia berriztagarriak sortzeko sistemak ezarri
- Udal etxebizitza promozioetan energia berriztagarriak sortzeko sistemak bultzatu
- Herrirako energia berriztagarriak sustatzen dituzten proiektuak bultzatu

4.2.2 Sektore ezberdinetan energia aurrezteko neurriak ezarri

4.2.3 Sektore ezberdinetan energiaren kontsumoa ezagutu eta kontrolatzeko baliabideak ezarri:

- Eraginkortasun energetikoari buruzko informazioa herritarren eskura jarri

4.2.4 Eraginkortasuna bultzatzeko neurriak martxan jartzea (argiteria publikoan, udal ibilgailu berrien erosketan, ...)

4.3. Jarduera programa: Kontsumo arduratsua bidez, hondakinen sorrera murriztea eta sortutako hondakinen kudeaketa optimizatzea (LEHENTASUN ALTUA)

4.3.1 Arduraz kontsumitzeko ekimenak bultzatu (sentsibilizazio ekintzak, ...):

- Eskola-Baratzen ekimena bultzatu eta martxan jartzeko pausoak eman

4.3.2 Hondakinen isurketa ilegalak antzeman eta horiei aurre egiteko neurri eraginkorrak ezarri

4.3.3 Hondakinen sorrera murrizteko neurriak ezarri

4.3.4 Berrerabilpena bultzatzeko neurriak ezarri

4.3.5 Gaur egungo birziklapen eredua hobetu eta birziklapen maila handitzeko ekimenak gauzatu, herritarrei nahiz enpresei zuzenduta:

- Etxeetako hondakinen gaikako bilketa handitzeko eta hobetzeko neurriak ezarri
- Industrietako gaikako bilketa hobetzeko neurriak ezartzea (kontrol neurriak, etab.)
- Industria guneeetako gaikako bilketa poligonoetan bertan gauzatu eta optimizatzea

5. LERRO ESTRATEGIKOA: HERRITARREN BIZI KALITATEAN ERAGIN DEZAKETEN INGURUMEN ALDAGAI EZBERDINEN GAINKO KONTROL ETA KUDEAKETA ERAGINKORRA GAUZATZEA

5.1. Jarduera Programa: Era ezberdinetako kutsadura sortzen duten herriko jardueren gaineko kontrola gauzatu (LEHENTASUN ERTAINA)

5.1.1 Kutsadura mota ezberdinak (zarata, airearen kutsadura, usaina, ...) sor ditzaketen jarduerak identifikatu eta behar den kasuetan kontrolatu:

- Zakurren zaunken inguruko jarraipena aurrera eraman

5.1.2 Kutsatutako lurzoruen gaineko azterketa eta berreskurapen lanetan erakunde-arteko elkarlana bultzatu

5.1.3 Nekazaritza eta abeltzaintzan ingurumen praktika egokiak ezarri

5.1.4 Adunako meategi eta zabortegien ingurumen berreskurapena bultzatu (Bulandegi harrobia, adibidez)

5.2 Jarduera Programa: Ingurumen inpaktua sor dezaketen proiektuen gaineko jarraipena aurrera eraman (LEHENTASUN ALTUA)

5.2.1 Inpaktua sortzen duten proiektuen diseinu fasetik, Udalak kontrol edo jarraipen lanak aurrera eramatea

5.2.2 Izaera ezberdineko proiektuen ingurumen inpaktua ekidin edo gutxitze aldera, erakundeen arteko elkarlana bultzatzea

5.2.3 Inpaktua murrizteko neurrien ezarpena bultzatzea

6. LERRO ESTRATEGIKOA: ARRISKUEN PREBENTZIOAN SAKONTZEKO ETA JARDUERA EKONOMIKO ARDURATSUAK BULTZATZEKO GAI DEN UDAL POLITIKA BULTZATZEA

6.1. Jarduera Programa: Arrisku mota ezberdinen identifikazioa gauzatu eta horien aurreko udal jokabidea definitu (LEHENTASUN ERTAINA)

6.1.1 Arrisku naturalak identifikatzea eta kontrolatzea:

- Adunako baso suteen arriskuak murriztu eta saihesteko mekanismoak martxan jarri, prebentzioa eta baliabideak indartzu

6.1.2 Teknologia mailako arriskuak identifikatzea (isurketak, zaratak, usainak, WiFi, ...)

6.1.3 Arriskuen aurrean ahal den modu egokienean jokatzeko

6.2. Jarduera Programa: Klima Aldaketak Adunan sor ditzakeen arriskuei aurre egiteko eta horietara egokitzeko jarduerekin bat egin (LEHENTASUN BAXUA)

6.2.1 Berotegi Efectua eragiten duten Gasen (BEG) udal inbentarioa osatzen jarraitzea

6.2.2 Udal jardueretan BEGak murriztea

6.2.3 Udalak sustatutako jardueretan Klima Aldaketaren aldagaia txertatu

6.2.4 BEG isuriak konpentsatzea

6.3. Jarduera programa: Udal nahiz enpresen jardueran ingurumen aldagaia eraginkorki txertatzea (LEHENTASUN ERTAINA)

6.3.1 Enpresen ekoizpen prozesuetan ingurumen neurriak ezartzea bultzatzea

6.3.2 Erosketa eta kontratazioetan ingurumen aldagaia kontuan hartzea

6.3.3 Funtzionamenduan baliabideak aurrezteko

6.3.4 Funtzionamenduan hondakinen kudeaketa egokia izatea

6.3.5 Ingurumen arloan langileen sentsibilizazioa lantzea

7. LERRO ESTRATEGIKOA: HERRIKO GARAPEN EREDU OREKATU ETA KALITATEZKOAREN ALDEKO PROZESUAK ETA TRESNAK FINKATZEA, HERRITARREN INPLIKAZIOA AREAGOTZEKO

7.1. Jarduera Programa: Herritarren partaidetza-maila eta inplikazioa handitzeko bideak aztertu, komunikazioa zainduz (LEHENTASUN ALTUA)

7.1.1 Herritarrak informatzea, gardentasuna sustatuz:

- Herritarrei zuzenduta bidaltzen diren paperezko euskarriak (bandoak, gutunak, ...) etxebizitza guztietara heltzen direla ziurtatu

7.1.2 Gazteak eta partaidetza modu ezberdinak uztartzeko baliabideak ezartzea

7.1.3 Enpresa sektorearen partaidetza bultzatzeko bideak aztertzea

7.1.4 Herritar parte-hartzaileen aurreko jarrera zaintzea

7.1.5 Sentsibilizazioa eta partaidetza bultzatzen jarraitzea

7.1.6 Sortutako partaidetza moduen indartzea

7.1.7 Partaidetza modu berriak aztertzea

7.2. Jarduera Programa: Garapen jasangarriaren aldeko udal-kudeaketa tresnak mantendu eta horien eraginkortasuna handitu (LEHENTASUN ERTAINA)

7.2.1 Udal eta eskualdeko erakundeetako langile ezberdinen inplikazioa bultzatu ekintza plan berriaren urteko jarraipen eta programazio lanetan

7.2.2 Langileak garapen jasangarriari buruzko ekimen ezberdinen inguruan informatzea eta sentsibilizatzea

7.2.3 Ekintza Plana berriaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresnak erabiltzen jarraitu

7.2.4 Eskualde mailako proiektuetan udalaren parte-hartzea bermatu

8. LERRO ESTRATEGIKOA: HERRIKO SEKTORE EKONOMIKO EZBERDINAK INDARTU, HERRIAN SORTZEN DIREN LANPOSTUEN KALITATEA HANDITZEKO

8.1. Jarduera Programa: Lehen sektorea indartzeko gai diren politikak diseinatu eta abiaraztea (LEHENTASUN ERTAINA)

8.1.1 Berreskuratutako zonalde zehatzetan nekazaritzarako lurrak bilatu

8.1.2 Herrian edo bailara mailan sortutako produktuak bultzatu

8.1.3 Herri-baratzak ezartzeko pausoak eman

8.1.4 Herritarrei Adunako 1. sektoreari buruzko informazioa erraztu, funtzionamenduan ez dauden lurrak 1. sektorearekin zerikusia duten jardueretara bideratzeko

8.1.5 Belaunaldi aldaketarako erraztasunak eman

8.2. Jarduera Programa: Herrian enpresen sorrera ahalbidetu eta kalitatezko enplegua sortzeko gai diren proiektuak garatu (LEHENTASUN ALTUA)

8.2.1 Dagokion erakundeek ekintzak garatzea enpresak herrira erakartzeko

8.2.2 Enpresa txikiak herrian ezartzeko orduan, telekomunikazio sarea hobetzea.

8.2.3 Ondare naturala eta kulturala balioan jartzeko ekimenak burutu

8.2.4 Teknologia berriak, garbiak eta berrikuntza uztartzea

8.2.5 Bertako enpresei etengabeko informazioa ematea (diru-laguntzak, prestakuntza, etab.)

8.2.6 Udalerriko enpresen guneetan jarduera garbiak, jasangarriak eta enpleguak sortzerakoan herriko jendeari lehentasuna emateko gai direnak izateko pausoak ematea

8.2.7 Udal kontratazioetako baldintzetan kalitatezko enplegurako irizpideak barneratu eta herriko langabeak kontratatzen jarraitu

8.2.8 Garapen Agentziako zerbitzuetako ekintzen inguruko informazioa zabaldu (prestakuntza ikastaroak, enpleguarekin erlazionatutako zerbitzuak eta bere funtzioak, beste inizatibak...) langabezia dauden sektoreetara bideratuak

9. LERRO ESTRATEGIKOA: HERRITAR GUZTIEN ONGIZATEA BERMATZEKO BALIABIDEAK ESKAINTZEA, BERDINTASUNA ETA GIZARTE ZUZENTASUNA BULTZATUZ

9.1. Jarduera Programa: Gizarte bazterketa eragin dezaketen egoerei aurre egin, biztanleen arteko kohesioa bultzatuz (LEHENTASUN ALTUA)

9.1.1 Gizarte laguntzen informazioa herritarren eskura jartzen jarraitzea eta informazio horren kalitatea hobetzea

9.1.2 Gizarte zerbitzuen inguruko orientazioa ematen jarraitzea eta berau hobetzea

9.1.3 Gizarte bazterketa sortzen duten egoerak identifikatuta izatea (gazteengan, 3. adineko pertsonengan, emakumeengan,):

- Hirugarren adinekoen bizi kalitatea hobetzera zuzendutako programak martxan jarri
- Udalerrira iristen diren pertsonen udaletik harrera egokia egin

9.1.4 Krisiaren eraginez sortutako egoera berriak aztertu eta horiei aurre egitera zuzendutako baliabideak martxan jarri

9.1.5 Herritarren aniztasuna kudeatzeko asmoz, herriko eragile publikoei zuzendutako prestakuntza antolatu (udal langileak, herri-eskola, ...)

9.2. Jarduera Programa: Herri mailako jarduera ezberdinetan aukera berdintasuna bermatu (LEHENTASUN ERTAINA)

9.2.1 Aukera berdintasuna bultzatzera zuzendutako udal politikak diseinatzea

9.2.2 Arlo honi lotutako sentsibilizazio ekintzak aurrera eramatea

9.2.3 Emakumeak lan munduan aurkitzen dituen zailtasunei aurre egiteko laguntza zerbitzuak ezarri, eskualdeko garapen agentziaren bidez

9.2.4 Herriko aktibitateetan emakumeen parte hartzea indartu

9.2.5 Udalean genero perspektiba zeharkako gaia izatea

9.3. Jarduera Programa: Osasunaren arloan, herritarren beharrak asetzeko gai den zerbitzuen eskaintza bermatu (LEHENTASUN TXIKIA)

9.3.1 Gutxieneko osasun zerbitzuak bermatzeko bideak aztertu

9.3.2 Osasun arloa potentziatzeko jarduerak burutu

10. LERRO ESTRATEGIKOA: HERRITARREI EGUNEROKO BEHARRAK ASETZEKO ETA ESKUBIDEAK BERMATZEKO GAI DIREN BALIABIDE, AZPIEGITURA ETA ZERBITZUAK ESKAINI

10.1. Jarduera Programa: Hezkuntzaren kalitatea bermatzeko baliabideak eskaini (LEHENTASUN TXIKIA)

10.1.1 Herri-eskolarekin harremana sendotzea eta eskolaren beharrei erantzutea

10.2. Jarduera Programa: Herritar guztien artean kirol zaletasuna bultzatzea eta ariketa fisikoa egiteko baliabideak eskaintzea (LEHENTASUN ERTAINA)

10.2.1 Ariketa fisikoa bultzatzeko jarduerak antolatzea

10.2.2 Azpiegiturak aurreikustea eta eraikitzea

10.3. Jarduera Programa: Adunako herritarren etxebizitza eskubidea bermatzeko gai den udal politika aurrera eramatea (LEHENTASUN ALTUA)

10.3.1 Etxebizitza hutsen zerrenda eduki eta bakoitza zein egoeratan aurkitzen den ezagutu

10.3.2 Etxebizitza hutsen kopurua gutxitzeko neurriak ezarri

10.3.3 Familia mota berrien beharrei erantzutea:

- Adunako herri gunean eta inguruetan etxebizitza berriak sustatu, lehendabiziko etxebizitza premian dauden herritarrei lehentasuna emanda.
- Herritarrek Adunak etorkizunera begira zenbat eta nola hazi behar duen hausnartzeko/eztabaidatzeko bilera irekiak antolatu.
- Ahalik eta prezio oneneko etxebizitzak eraikitzea baimenduko duten neurriak aurrera eraman.

10.3.4 Adunako herritarrak herrian geratzeko etxebizitza politika egokiak diseinatzea

10.4. Jarduera Programa: Euskararen jakintza maila eta erabilera handitzea, hizkuntzaren etorkizuna bermatzeko (LEHENTASUN ERTAINA)

10.4.1 Sektore ezberdinen euskalduntzea sustatzeko neurriak ezartzea:

- Herritarren kontzientziaioa lantzea eta herritarrei ikusaraztea Adunako berezko hizkuntza euskara dela eta izan dela
- Herriko hizketa aberastasunari eustea, gordetzea eta gaztetxoaren artean zabaltzeko ekimenak aurrera eramatea (lexikoa, toponimia, etab.

bilduz)

10.4.2 Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak lantzea, sentsibilizazio ekimenen bidez

10.4.3 Hizkuntza paisaia babesteko neurriak ezartzea

10.4.4 Udal kontratazioetan (obrak, zerbitzuak,...) euskararen erabilera bermatzeko klausulak barneratzea

10.4.5 Adunan "Mintzalaguna" k antolatzeako aukerak aztertu

10.4.6 Edozein proiektu abian jartzean, horrek herriko euskararen zein eragin izan dezakeen aztertzea eta babes neurriak abian jartzea

10.5. Jarduera Programa: herriko kulturgintza bultzatzea, herritarren kultur zaletasuna eta parte-hartzea handitzeko (LEHENTASUN ALTUA)

10.5.1 Aisialdi eskaintza lantzea, herritar guztientzat erakargarria izan dadin

- Kultur ekintzak antolatzerakoan herritarren aniztasuna kontutan hartzea

10.5.2 Herritarrek sustatutako ekimenak bultzatzea, herriko aisialdi eskaintzan txertatzeko

10.5.3 Azpiegituren erabilera handitzeko bideak aztertzea

10.5.4 Herriko ondare historiko, etnografiko eta arkitektonikoa ezagutzera eman

10.6. Jarduera Programa: eguneroko beharrak asetzeko gai diren bestelako baliabide edo azpiegituren ezarpena aztertu (LEHENTASUN ERTAINA)

10.6.1 Herri gunean elikagaiak nahiz eguneroko beharretarako produktuak sal ditzakeen denda irekitzeko aukerak aztertzea

10.6.2 Herriko baliabide eta azpiegituren erabilera bailara mailakoekin koordinatzea:

- Bailara mailako hezkuntza beharrak antzematea, horiek modu koordinatuan asetzeko
- Bailarako ikuspegia mantentzea, kirol baliabideak optimizatze aldera
- Kultur arloan, bailarako ikuspegia eta koordinazioa bultzatzea